



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2007ko urtarrilaren 30a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:03 **AMAIERA-ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genoba Solabarrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Asier Yeregi Campos, Eugino Cotado Iturain, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: M. Jose San Sebastian Aranburu ez da bilkuran izan, herritik kanpo dagoelako.



Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko abenduaren 26ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 1/2007 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
- 4.- Behin betiko onartzea, egoki bada, Orioko udal etxebizitza tasatuen Udal Ordenantza Arautzailea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Uranga Artola familiaren hiri-finkaren salerosketa, “Salatxo” bezala ezaguna, 1478 zenbakiarekin erregistratua, eta Alkatetzari Presidentetzari ahalmen zabala ematea salerosketaren eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (E.E.E./E.V.E.) sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmen-markoaren testua, eta Alkatetzari ahalmena ematea sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 7.- Ematea, egoki bada, behin behinekoz erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen izendapena Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako 21 eta 18 etxebizitzei.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan udal sustapeneko babes ofizialeko 36 etxebizitzentzako adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak.



- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan udal sustapeneko 39 erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak.
- 10.- Onartzea, egoki bada, “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako erregimen bereziko 21 eta 18 udal etxebizitza tasatuen exekuzio” obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta adjudikatzeko modua lehiaketa bidez.
- 11.- ETXERAT-ek aurkeztutako mozioa, Iñaki de Juana-ren egoera pertsonalari dagokiona eta udala osatzen duten EAJ-PNV eta EA talde politikoen aurkeztutako mozio alternatiboa.
- 12.- Onartzea, egoki bada, Madrid-Barajas-eko Aireportuan iragan abenduaren 30ean ETAREN atentatuari dagozkion udalbatzarraren akordioak.
- 13.- Onartzea, egoki bada, Lehendakariaren kriminalizazioari dagozkion udalbatzarraren akordioak.
- 14.- Eskariak eta galderak.

Esan-Eginak

1.- IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO ABENDUAREN 26KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Cotado (EA), Legarra (EA) eta Azkue (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik



osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA, 2006ko abenduaren 26ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

Bere botoa azaltzeko, hitza hartzen du Jesus Rodriguezek (PSE-EE-PSOE) eta adierazten du kontrako botoa eman diola aipatutako aktaren onarpenari, aztergai zerrendako 3. puntuaren erredakzioan (Udalaren 2007ko Aurrekontuaren onarpenari buruzkoa), bere ustez, idazkariak ez dituelako behar bezala jaso berak kontrako botoa emateko agertu zituen arrazoiak.

Horri erantzunez, udal idazkariak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: udalbatzarraren aktak jasotzerakoan, ez direla hitzez hitz jasotzen talde politikoen edo udalbatzarkideen esanak, baizik eta horien laburpena, eta gai hori horrela zehaztuta dagoela indarrean dagoen erregimen lokalaren alorreko araudian. Beraz, idazkariak dio, bere ustez, aktan labur eta egoki jasota daudela Jesus Rodriguez udalbatzarkideak aipatutako puntu horretan bere botoa azaltzeko eman zituen arrazoiak.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN KREDITUEN ALDAKETARAKO 1/2007 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta idazkari-kontuhartzaileak igorritako txostenaren eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV) eta Genoba (EAJ-PNV), zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO SEI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Legarra (EA), Azkue (EA), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren



abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO LAU BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 1/2007 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean, 2.100.000,- €-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatzakideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteke bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO – I. FASEA –” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, PRESAZKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

1.- Erakunde adjudikatzailerak.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailerak.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren azalpena:

Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1.Fasea - obrak, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

- b) Exekuzio epea:

Epea, gehienez, 4 hilabetekoa izango da.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

- a) Tramitazioa: Presazkoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

480.839,67 euro, BEZa barne. Lizitatuak hobe dezakete kopuru hori.



5.- Garantiak.

Behin-behinekoa: 9.616,79 euro.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Kontratistaren sailkapena.

- Taldea C, azpitaldea 4, kategoria b.
- Taldea I, azpitaldea 6 eta 9, kategoria .
- Taldea K, azpitaldea 7, kategoria b.

8.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. DONOSTIA.

9.- Eskaintzak aurkezteko.

- a) Epea: 13 egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.
- c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.
- d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

10.- Eskaintzen irekiera.

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

4.- BEHIN BETIKO ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Arrantza eta Nekazaritza Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Olariaga (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Azkue (EA) eta Leunda (EAJ-PNV) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- ATZERA BOTATZEA OSORIK Emeterio Iribar Sorazuk, Talai Herri Plataformaren izenean, Orioko udal etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren lehen onarpeneko akordioari aurkeztutako alegazioak. Ordenantza horri 2006ko azaroaren 28ko bilkuran eman zion udalbatzarrak lehen onarpena.

2. BEHIN BETIKO ONARTZEA Orioko udal etxebizitza tasatuen Udal Ordenantza Arautzailea, eta, beraz, **AGINTZEA** ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean jar dadin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URANGA ARTOLA FAMILIAREN HIRI-FINKAREN SALEROSKETA, "SALATXO" BEZALA EZAGUNA, 1478 ZENBAKIAREKIN ERREGISTRATUA, ETA ALKATETZA-PRESIDENTETZARI AHALMEN ZABALA EMATEA SALEROSKETAREN ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Uranga Artola familiaren hiri-finkaren salerosketa, “Salatxo” bezala ezaguna, 1478 zenbakiarekin erregistratua, eta Alkatetza-Presidentetzari **AHALMEN ZABALA EMATEA** salerosketaren eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa. Salerosketaren prezioa 8.800 €-koa da.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (E.E.E./E.V.E.) SINATU BEHARREKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOAREN TESTUA, ETA ALKATETZARI AHALMENA EMATEA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (E.E.E./E.V.E.) sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmen-markoaren testua, eta Alkatetzari **AHALMENA EMATEA** sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

7.- EMATEA, EGOKI BADA, BEHIN BEHINEKOZ ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN IZENDAPENA ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA- U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B5 ETA 2B6 PARTZELETAN, HURRENEZ HURREN, PROIEKTATUTAKO 21 ETA 18 ETXEBIZITZEI.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

EMATEA behin behinekoz erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen izendapena Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako 21 eta 18 etxebizitzei.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B4 PARTZELAN UDAL SUSTAPENENKO BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZEN ADJUDIKAZIORAKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Arrantza eta Nekazaritza Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Olariaga (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Azkue (EA) eta Leunda (EAJ-PNV) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU**:

ONARTZEA Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan udal sustapeneko babes ofizialeko 36 etxebizitzen adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak.



9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B5 ETA 2B6 PARTZELETAN UDAL SUSTAPENEN 39 ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ADJUDIKAZIORAKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Arrantza eta Nekazaritza Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Olariaga (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Azkue (EA) eta Leunda (EAJ-PNV) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan udal sustapeneko 39 erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak.

Emandako botoa azaltzeko, Jesus Rodriguezek (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: abstentzio botoa eman duela ez datorrelako bat oinarri arautzaileen 4., 8. eta 9. puntuekin. Bere desadostasuna, nagusiki, honako hau da: etxebizitza erosiko dutenei jartzen zaien baldintzetako bat da 10 urtez egon behar dutela Orion erroldatuta, erosteko aukera izateko; Jesus Rodriguezek dio epe hori 'barbaridade' bat iruditzen zaiola eta, bere ustez, askoz epe zentzuzkoago eta logikoagoa litzatekeela urte 1 edo 2koa.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B5 ETA 2B6 PARTZELETAN, HURRENEZ HURREN, PROIEKTATUTAKO ERREGIMEN BEREZIKO 21 ETA 18 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN EXEKUZIO” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO



**PARTIKULARRAK, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ
ETA ADJUDIKATZEKO MODUA LEHIAKETA BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko urtarrilaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako erregimen bereziko 21 eta 18 udal etxebizitza tasatuen exekuzio” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta adjudikatzeko modua lehiaketa bidez.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

1.- Erakunde adjudikatzailerak.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailerak.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren azalpena:

Orioko – Hondartza- A.I.U. 3 Hirigintza Iharduera Eremuan 21 eta 18 udal etxebizitza tasatu eraikitzeke obrak egitea, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

- b) Exekuzio epea:

Epea, guztira, 24 hilabetekoa izango da.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Arrunta.



c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

3.806.588,62 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5.- Garantiak.

Behin-behinekoa: 76.131,77 euro

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Kontratistaren sailkapena.

- Taldea C, azpitaldea 2, kategoria c.

- Taldea C, azpitaldea 4, kategoria c.

8.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. DONOSTIA.

9.- Eskaintzak aurkezteko.

a) Epea: 26 egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

10.- Eskaintzen irekiera.

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita laugarrenengo laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

11.- ETXERAT-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA, IÑAKI DE JUANA-REN EGOERA PERTSONALARI DAGOKIONA ETA UDALA OSATZEN



DUTEN EAJ-PNV ETA EA TALDE POLITIKOEN AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.

Udalbatzar honek ETXERAT-ek aurkeztutako mozioaren berri jakiten du, Iñaki de Juana-ren egoera pertsonalari dagokiona. Mozioak hitzez hitz honela dio:

“Gure senide Iñaki de Juana donostiarra hil ala biziko egoeran aurkitzen da espainiar Estatuak ezarritako kondena oso-osorik bete ostean ez dutelako askatu. Espainiar Estatuak ezarritako kondena 2000. urtean bete arren (orduan bete baitzituen kondenaren 3/4enak) ez zuten askatu. Kondena oso-osorik 2004. urtean bete zuen baina orduan ere ez zuten askatu. Batetik, ebazpen judizialen bitartez onartuak zituen erredentzioak egun batetik bestera kendu egin zizkiotelako eta, bestetik, Espainiako agintariek publikoki aitortu zuten bezala, edozein bitarteko erabiliz, kasu honetan bi iritzi artikulurengatik, gure Iñaki ia beste 13 urtera kondenatu dutelako.

Guzti honegatik Iñaki gose greba mugagabea egiten ari da eta, egun, Madrilgo 12 de octubre ospitalean dute bere nahiaren aurka elikatuz, bere bizia arrisku larrian delarik.

Egoera ezin larriago honek, gure senide Iñakirekin bizitza arrisku larrian baita, ondoko lerroetan laburbiltzen den mozioa urgentziaz tratatua eta Udal honek onartua izatea eskatzea garamatza:

- *Udal honek Iñaki de Juanaren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari.*
- *Udal honek bere ekimenak antolatuko ditu Iñakiren askatasunaren alde (herritarrei parte hartzera deituz), edo jada antolatzen diren ekimenetan parte hartuko du.*
- *Erabaki honen berri komunikabideei zein herritarrei emango zaie.”*

Era berean, Udalbatzar honek dala osatzen duten EAJ-PNV eta EA talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak hitzez hitz honela dio:



“Ezker Abertzaleak”, Iñaki de Juanak eta oro har preso dauden euskal hiritarrek bizi duten egoeraren inguruan aurkezten duen mozioaren aurrean, EAJ-PNV-ren udal taldeak honako mozio alternatiboa aurkezten dio udaletxe honetako osoko bilkurari:

1.- Printzipio humanitarioekin, zein gizaki ororen eskubide eta askatasunekin dugun konpromisoaren baitan, askatasunik gabe dauden euskal hiritar guztiguztien eskubideen errespetu zorrotza exijitzen dugu.

2.- Preso dauden hiritarrei dagozkien eskubideen errespetua egoera politiko zehatzen gainetik egon behar du beti. Bere burua zuzenbidezkotzat duen Estatu batek ezin dezake inolaz ere lege iruzurraren bitartez pertsona baten eskubiderik zanpatu.

3.- Honela, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoek askatasuna eskatzen dugu.

4.- Zehazki Iñaki de Juana presoak bizi duen egoerari dagokionez, kasu honetan ere, beste guztietan bezala, legeak eskaintzen dizkion eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu, bere askatasuna ekiditeko egin den lege erabilpen maltzurra gaitzesten dugularik.

5.- Konponbideak guztien eskubideen begirunetik etorriko direla zinez sinesten dugu, eta horregatik, deialdi berezia luzatzen diegu prozesu honetan inplikaturik dauden alde guztiei eskubide horiekiko konpromiso sendoa har dezate.”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 kontrako boto]:

EZ ONARTZEA ETXERAT-ek aurkeztutako mozioa, Iñaki de Juana-ren egoera pertsonalari dagokiona.

Era berean, Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV),



Leunda (EAJ-PNV), Legarra (EA), Yeregi (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA udala osatzen duten EAJ-PNV eta EA talde politikoek aurkeztutako mozio alternatiboa.

Emandako botoen azalpenean, Jesus Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak hartu du hitza, justifikatzeko, alde batetik Etxerateg aurkeztutako mozioari emandako ezezko botoa, eta beste alde batetik, udal hau osatzen duten EAJ-PNV eta EA alderdi politikoek aurkeztutako mozio alternatiboari emandako abstentziosko botoa.

Zentzu honetan, Jesus Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak dio ez zaiola egokia iruditzen de Juana presoaren kartzelan egotea, eta ondorioz, justizia objektibo batean baino, justizia subjektibo batean gaudela dio. Hala ere, sententzia ez dago indarrean, eta esaten du injustua iruditzen zaiola egunkari batean bi artikuluko publikatzeagatik de Juana presoari ezarri zaion kondena. Baina ez zaio egokia iruditzen Etxerateg Espainiako Gobernuari egiten dion exigentziari jarraiki, Udal honek aipatu presoaren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzea, oso garbi utzi behar baita presoaren ez dagoela Espainiako Gobernuaren esku, eta bai, ordea, justiziaren esku.

EAJ-PNV eta EA Albedi politikoek aurkeztutako mozio alternatiboari dagokionean, oro har, edukiarekin adostasuna adierazten du, alde aurretik errekonozituz de Juana presoak izan duen epaiketan epaileek ez direla objetibotasunez aritu.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, MADRID-BARAJAS-EKO AIREPORTUAN IRAGAN ABENDUAREN 30EAN ETAREN ATENTATUARI DAGOZKION UDALBATZARRAREN AKORDIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. Joan den abenduaren 30ean ETAk Madrilgo aireportuan (Barajas) egindako atentatu terroristaren aurrean, samina erakustea eta atentatua gaitzestea.
2. Kaltetutako eta zauritutako herritar guztiei babes, elkartasuna eta adiskidetasuna adieraztea, eta bereziki hilda aurkitu dituzten Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacioren familiei, beraien lagunei eta saminak ukitutako komunitate latinoamerikar osoari.
3. Berriz ere adieraztea ETAk giza eskubideen aurka eta erakunde biolento gisa irauten duen bitartean egiten dituen ekintzek Euskadiko herritarrek demokrazian eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea eraikitzeko duten borondatea eta konpromisoa mesprezatzen dutela.
4. Ezker Abertzaleari eskaera egitea ekintza terroristetatik aldentu dadin; izan ere, ETAREN desarmearekiko konpromiso sinesgarri batek (frogatu eta egiaztatu daitekeena) baino ezin du ahalbidetu bakea eta askatasuna lortzea. Gizarteak eskaera egiten dio Ezker Abertzaleari, tutoretzarik gabe, bere proiektu politiko propioa defendatzeko gai izan dadin, politikaren bitartez soilik.
5. Berriz adierazi nahi dugu bakearen bilaketan eta bizikidetzaren politikoan izan beharreko lidergoa herritarrek legez aukeratutako erakundeei dagokiela. Hori adostasunean oinarrituta egin behar da, Zuzenbide Estatuaren printzipioekiko koherente jokatzeko eta Herrialdeko sentsibilitate politiko desberdinen konpromisoak gatazkatik eta alderdien arteko interesetatik baztertuz.
6. Euskadiko herritarrei deia egitea, era aktiboan parte har dezaten bakearen eta normalkuntza politikoaren aldeko gizarte-partaidetzako ekimenetan, beti ere, printzipio hauetatik abiatuta: batetik, demokraziaren, askatasunaren eta giza eskubideen babesaren defentsa, eta, bestetik, erakunde publikoen eta alderdi politikoaren esku utzitako zereginaren aintzatespena eta errespetua.”



**13.- ONARTZEA, EGOKI BADA, LEHENDAKARIAREN
KRIMINALIZAZIOARI DAGOZKION UDALBATZARRAREN
AKORDIOAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Legarra (EA), Yeregi (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibarretxe lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta, Orioko Udalak, "Euskal Erakundeen Alde" ekimenarekin bat eginaz honakoa adierazi nahi du:

1. Instituzio politikoei eta herritarren borondatearen ordezkari zuzenak direnei dagokien funtzioa mugatzea bilatzen duen justiziaren politizazioa salatu nahi dugu, eta gure laguntasunik sendoena eta irmoena adierazi nahi diogu Lehendakariari, bere kontra Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ireki duen zigor kausaren aurrean. Honek, bere oinarrizko eskubideak eta gure Herrian eman beharreko ekimen politikoa zuzentzeko duen ardura instituzionala ezereztu nahi ditu.
2. Politika egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, judizializazioaren mehatxurik gabe; elkarrizketa, eztabaida eta jarduera instituzional eta politikoa ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan eta, are gutxiago, delituzkoak, arazoei konponbide zuzenak emateko.



3. Jakin badakigu larria dela justiziak demokraziaren zutabeen kontra, politika jarduera egiteko eskubideen kontra eta gure instituzioen balorearen kontra eragindako erasoak; ondorioz, **Lehendakariaren kontra irekitako zigor kausa arrazoi gabea berehala ixtea exijitu nahi dugu.**
4. Akordio honen berri Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren Presidenteari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Presidenteari emango zaie.

Jesus Rodriguezek (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, emandako botoa azaltzeko, eta honako hau adierazten du: abstentzio botoa eman duela garbi utzi nahi duelako talde sozialistak kritikatu egiten duela Lehendakariari ezarri zaion 'banquillo' zigorra eta ez dagoela sistemarekin ados. Printzipioz, Justiziari utzi behar zaio lan egiten eta, gero, egoki balitz, 'torlojuak estutu'. Adierazten du, baita ere, bat datorrela gaurko udalbatzarrean hartutako akordioaren lehendabiziko hiru puntuekin, baina ez laugarrenarekin, iruditzen zaiolako erabaki honen berri instantzia horietara bidaltzea presio egiteko modu bat dela.

14.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden batzuek hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zortziak eta hamar minutu izanik, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN.**

ALKATEA

IDAZKARIA